

EGUERDI ON GUZTIOI!!!! ETA ESKERRIK ASKO GUREKIN EGOTEAGATIK

HASTEKO, CEL TALDEKO LANGILEOK ESKERTU NAHI DIZUEGU ZUEK GAUR HEMEN EGOTEA ETA GURE LANPOSTUEN ALDEKO BORROKAREKIN BAT EGITEA. ESKERRIK ASKO BENETAN!!!

Gizarte, kultura, kirol... arlo askotako taldeok eman diguzue babesa. **Guztiok dakigu eskualde honek zein egoera larria bizi duen.** Eskatzen dizuegu gaur bezala aurrerantzean ere gure ondoan egotea, BORROKA GOGORRA IZANGO BAITA.

CELeke langileok egoera oso larria ari gara pairatzen. Zoritxarrez, gainera, eskualde honetan arazoa ez da berria; beste kasu batzutan ere antzeko uneak bizi izan ditugu, **industri-politikarik ez delako egin, .**

Enkarterriko industrian gertatu den desinbertsioa nabarmena izan da. Ez da industriaren aldeko apusturik egin, ezta sektore primarioan ere ez. Lantegi mordo bat itxi dute: Altzari enpresak, ARKEMA, RECKITT BENCKISER, THYSSEN GROUP, PASTGUREN... Azken hamar urteetan desindustrializazio itzela sufritu dugu; horregatik, gure eskualdeak du Euskal Herriko langabezia tasarik handiena.

CEL taldea da Enkarterrian enplegu gehien duen enpresa; enplegu horiek orain aidean daude. Hau bideratzen ez bada itxierak hirurehun familia eta gehiagori eragingo lioke. Baina kalte handia egingo lieke ere inguruko beste enpresa txiki eta negozio askori.

Gertakariak oso arin etorri dira bata bestearen atzetik. Hiru hilabete eskasean normaltasunetik amildegi ertzera iritsi gara. **Gure lanpostuak galtzeko zorian gaude.**

Enpresak maiatza amaieran esan zigun hartzekodunen aurrekonkurtsua hasiko zuela, eta akziodun nagusiek alde egin zutela. **Akziodunek pisua zuten; ez ziren edonor:** Eusko Jaurlaritzak akzioen %40 zeukan, eta Indarkiak beste %45; Gandasegi enpresarioa zegoen honen buru. Astebete geroago argia eten ziguten ez zelako ordaindu; ordutik hona ia ez dago jarduerarik lantegian. Uztailean hartzekodunen konkurtsua hasi zen, eta Zurbost (akzionista bakarra) enpresak 254 langiletik 211 kaleratzeko prozesua jarri zuen martxan; ia plantilla guztia kaleratu nahi dute.

Ez dugu onartuko. Borroka egingo dugu CELeke zabalik jarrai dezan. Lantegi hau ezinbestekoa da Enkarterriren etorkizunerako. Oso industria gutxi geratzen da hemen, eta daukagun apurra muturreraino defendituko dugu.

CEL taldeko enpresa-komiteak eta langileok zuzendaritzaren jarrera **salatu nahi dugu.** Zuzendaritza da orain bizi dugun egoeraren arduradunetako bat. Zer egin du? Saiatu da langileoi xantaia egiten, soldata jaitsiera onartzeko, baina etorkizuneko planik eskaini gabe. **Bada, ez, ez dugu xantaia onartuko; EZ EURENA, EZ BESTE INORENA ERE. ETORKIZUNERAKO PLAN BAT BEHAR DUGU.** Ez gara fidatuko bermerik ematen ez digutenekin.

Badakigu gure enpresak **etorkizuna baduela.** Fakturazio handia zuen, baita bezero garrantzitsuak ere. Baina enpresaren kudeaketa txarrak ekarri gaitu egoera honetara, hartzekodunen konkurtsora. **NORTZUK DIRA ARDURADUNAK? Oraindik daudenak, eta lehengo egon zirenak; hauek ihes egin dute, eta gu botata utzi gaituzte.**

Erakundeen jokabidea salatu behar dugu. **Eusko Jaurlaritzza eta Bizkaiko Foru Aldundia** gure enpresaren parte dira; **nahi ez badute ere, azkenean gertatzen denaren ardura dute**. Aldundia pabilioien eta makinen jabea da; maiatzaren 18raino Eusko Jaurlaritzak taldearen %40 zeukan bere esku. Jaurlaritzak alde egin eta bi egunera enpresak hartzekodunen aurrekonkurtoa iragarri zuen; kasualitatea. Egun gutxi igarota, argia kendu ziguten eta ezin izan dugu berriro lan egin. Gaur arte. **Abandonatu egin gaituzte, eta erabaki hori zuzendu egin behar dute.**

Maiatzetik hona hori aldarrikatu dugu, egunez egun: ADMINISTRAZIOEK ESKU HARTZEA ITXIERAREN KONTRA.

Badakigu Unai Rementeria Bizkaiko Diputatu Nagusiak datorren asterako batzar bat deitu duela eskualdeko alkateekin. Guk eskatzen diogu **hitzak alde batera utzi eta zerbait egin dezala**. Lan egin dezala neurri konkretuekin, CELen etorkizunaren alde, Enkarterriko industriaren alde benetako apustua egin dezala.

Alternatibak badaude. Hainbat inbertitzailek interesa agertu du eta instalazioak ikusi ditu. Beraz, **zuzendaritzari eta administrari konkurtsalari esaten diegu ez dela kaleratzeetaz hitz egiteko garaia; ez, ETORKIZUNAREN alde lan egiteko garaia da; CELEN eta eskualde guztiaren etorkizuna.**

CELen sartzeko asmoa adierazi duten enpresa-taldeentzako ohar bat: beren proposamenetan **mantendu egin behar direla lanpostuak, baina baita lan-baldintzak ere.**

Asko dago jokoan!!! Noski, gure lanpostua eta gure familien etorkizuna. Baina gainera jokoan dago ere **ESKUALDEKO AZKEN ENPRESA INDUSTRIALAK** martxan jarraitzea.

Erabaki dugu Enkarterrik beste etorkizun bat merezi duela. Eta horren alde borrokatzeko prest gaude. CEL ZABALIK MANTENTZEKO BORROKARA GOAZ!

INDUSTRIARIK GABE, ETORKIZUNIK EZ!!!!!!

GRUPO CEL EZ ITXI!!!!!!

ENKARTERRIAN BIZI ETA LAN!!!!!!

JO TA KE IRABAZI ARTE!!!!

DIPUTACION SOLUCIÓN!!!!!!!!!!!!

GOBIERNO VASCO IMPLICACIÓN!!!!!!!!!!!!